

DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2015

LANBIDE

1. LEHEN AUKERA programa.
2. Enplegu-eskatzaileen laneratzea errazteko prestakuntza-zentro pribatu nahiz publikoek (Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak ez direnak) emango dituzten prestakuntza-ekintzak finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia.
3. Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titulartasun juridikoko lanbide-heziketako zentro publikoei egindako kudeaketa-gomendioa, enplegu-eskatzaileak laneratzeko prestakuntza-ekintzei buruz.
4. HEZIBI – Gazteek prestakuntza eta lana txandakatzea.
5. HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako ekintza estrategikoetarako laguntza ekonomikoen 2015ko ekitaldirako deialdia. Hobetuz programaren egituraren finantzaketaren Ebazpena barne.
6. Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria.

1.- Izenburua

LEHEN AUKERA programa

2.- Araua

Gazte langabeak euskal enpresetan praktketan kontratatzeko laguntzen deialdia. Lehen Aukera programa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren administrazio-kontseiluak 2015eko martxoaren 18ko bileran hartutako akordioaren bidez onartutakoa. (2015eko martxoaren 27ko EHAA)

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Deialdiaren xedea da titulua edo prestakuntza izanik ere beren tituluarekin lotutako lanetan esperientzia gutxi edo batere esperientziarik ez duten gazte langabeak (16 urtetik gorakoei eta 30 urtetik beherakoei zuzendua) euskal enpresek praktketan kontratatzea, haien enplegarritasuna hobetzeko neurri gisa, lan-esperientzia lortu eta haien laneratzea sendotzearen bidez.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Deialdi honetako finantzaziora bideratutako baliabide ekonomikoak horrela banatuko dira:

- 4.700.000 euro, praktketako kontratuak finantzatzeko. Aurrekontu horretatik 2.499.930 euro 2015eko ordainketa-kredituari dagozkio, eta 2.200.070 euro 2016 ekitaldirako konpromiso-kredituari.
- 299.930 euro 2016ko kreditua ordaintzera bideratu dira, 4.3 artikuluan ezarritako zentro kolaboratzaileen enplegu-eskaintzak erakarri, erregistratu eta kudeatzea finantzatzeko.

Aurreikusitako emaitzak:

Aurrekontua (2015eko kreditua): 4.680.000 € (2015 eta aurreko urteetan adostutakoa)

Praktika-kontratuen kopurua (iraupena >= 6 hilabete): 975

Egiazko emaitza:

Gauzatutako aurrekontua: 1.476.774 €

Praktika-kontratuen kopurua (iraupena >= 6 hilabete): 738

Kontratu mugagabeen kopurua: 52

Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-inpaktua:

Gazteen kolektiboa da krisi ekonomikoaren eragina gehien sufritu duenetako bat. Beraz, gazteen langabezia murriztea gure gizarteko erronka garrantzitsuenetako bat da, eta erronka horri aurre egin behar zaio bai erakunde publikoetatik bai jarduera pribatuaren alorretik. Arazo honen konponbidean arrakasta lortuko da, hein handi batean, inplikaturik dauden erakunde eta

sektore guztien laguntzaren zein koordinazioaren arabera, baita egokiak diren neurriak diseinatzean, horiek hartzean eta martxan jartzean ekimen pribatuak duen partaidetzaren arabera ere.

1.- Izenburua

Enplegu-eskatzaileen laneratzea errazteko prestakuntza-zentro pribatu nahiz publikoek (Eusko Jaurlaritzaren jabetzakoak ez direnak) emango dituzten prestakuntza-ekintzak finantzatzera bideratutako laguntzen deialdia

2.- Araua

- 327/2003 Dekretua, Lan-aukerak areagotzeko eta Laneratzea sustatzeko neurriak arautzen dituena (aldatua).

2015. ekitaldirako baliabideak esleitzeko modua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren administrazio-kontseiluak 2015eko maiatzaren 13ko bileran hartutako akordioaren bidez onartutakoa (2015eko maiatzaren 18ko EHAA).

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Langabe-talde guztientzako prestakuntza-ekintzak eskaintzea prestakuntza-tipologia guztietan: funtsezko gaitasunak, lanean hasi aurreko prestakuntza, profesionaltasun-ziurtagiri osoak eta modulukakoak, txandakako prestakuntza, lanpostuko prestakuntza eta profesionaltasun-ziurtagiriei lotu gabeko prestakuntza; hori guztia talde eta prestakuntza maila desberdinen neurrirako prestakuntza eskaintzeko xedearekin.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Laguntza horiek finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 35.605.271 eurokoa da. Horietatik, 2015. urteko aurrekontu arruntean sartuko dira 21.510.271 euro, eta 2016rako konpromiso-aurrekontuan, aldiz, 14.095.000 euro.

Aurreikusitako emaitzak:

- 2015eko aurrekontua: 34.233.299 (2015eko kreditua eta aurreko urteetan adostutakoa)
- 2016ko konpromiso-kreditua: 14.095.000.-

Egiazko emaitza:

- 2015ean erabilitakoa : 34.096.275 €
- Prestakuntza-ekintzak: 1.055
- Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua: 16.827
- Lortutako kontratuen kopurua: 2015eko laneratze-indizea % 40,25ekoa izan da (2015ean amaitutako jardueretan).

Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-inpaktua:

Prestakuntza-jarduerei esker parte-hartzaileen % 70ek jaso du prestakuntza frogagarria, hau, da, profesionaltasun-ziurtagiriek lotutakoa. Prestakuntza frogagarri eta kualifikatzaile horrek



lanpostu bateko berezko eginbeharrak egiteko gaitzen ditu parte-hartzaileak. Lan-merkatura sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsoneri ere eman zaie prestakuntza: desgaitasuna duten pertsoneri (desgaitasuna zuten 612 pertsonak jaso dute prestakuntza) eta laneratzeko zailtasunak eta kualifikazio txikia dituzten pertsoneri. Azken horiek hizkuntzan eta matematiketan funtsezko gaitasunak bereganatzeko ikastaroak egin dituzte, prestakuntza frogagarria jaso ahal izateko beharrezkoa den baldintza betetzeko, baita gaitasun pertsonalak eta trebezia sozialak garatzeko prestakuntza ere (763 parte-hartzaile). Gainera, 4.000 pertsona inguruk profesionaltasun-ziurtagiriek lotu gabeko kualifikazio-ikastaroak egin dituzte. Horiek prestakuntza berritzailea eta eguneratzekoa jaso dute, alde batetik, eta lanbideak gauzatera zuzendutako prestakuntza, bestetik. Prestakuntza-jarduerak gainditzen dituzten ikasleen % 70ek lanekoak ez diren praktikak egingo dituzte enpresetan. Horrek lan-merkatuko atea irekiko die, zuzeneko enplegarritasuna hobetuz eta praktikak egiten dituzten enpresetan lan egiteko hautagaitza aurkeztuz.

1.- Izenburua

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren titulartasun juridikoko lanbide-heziketako zentro publikoei egindako kudeaketa-gomendioa, enplegu-eskatzailleak laneratzeko prestakuntza-ekintzei buruz

2.- Araua

AKORDIOA, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren artean hitzartutako kudeaketa-gomendioari buruzkoa, lehentasunez EAEko langabetuei zuzendutako prestakuntza-programazioa gauzatzeko dena. EHAA, 189. zk., 2014ko urriaren 6koa.

- 327/2003 Dekretua, aldatuta.
- 395/2007 ED
- 34/2008 ED
- 62/2014 Dekretua (aldaketa)

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Profesionaltasun-ziurtagiriak lortzeko prestakuntza-ekintzak ematea, oro har, lan bat edo gehiago egiteko gaitasun kualifikatzaileak eskuratzeko eta langabeen kualifikazio formalaren maila areagotzeko xedez. Lehentasunez langabeentzako ekintzetan profesionaltasun-ziurtagirietan trebatzea.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurreikusitako emaitzak

2015eko aurrekontua: 3.570.977 (2015ekoa eta aurreko urteetan adostutakoa)

Prestakuntza-ekintzen kopurua:

Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua: 1.200

Egiazko emaitza:

2015ean erabilitakoa : 3.462.085 €

Prestakuntza-ekintzen kopurua: 127

Prestakuntza jaso duten pertsonen kopurua: 2.041

Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-inpaktua:

Kudeaketa-gomendio horren bidez, kalitate handiko lanbide-heziketa lortzen da profesionaltasun-ziurtagirietan. Programa horretako prestakuntza industria-sektorerara bideratzen da gehienbat, zentro publikoek sektoreko dotazio onenak dituztelako (hitzartutako zentro handiekin batera). Era berean, langabeei prestakuntza ematen zaie ere gainerako jarduera ekonomikoetan, baina maila apalagoan, eskariari oso ondo erantzuten baitiote deialdi arruntean parte hartzen duten zentro pribatuek. Itsas eta arrantza-sektoreko prestakuntza ia guztia programa horretan ematen da.

1.- Izenburua

HEZIBI – Gazteek prestakuntza eta lana txandakatzea

2.- Araua

2118 EBAZPENA, 2015eko maiatzaren 14koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2012ko urriaren 3ko Aginduan ezarritako laguntzen 2015eko deialdia. Agindu horren bidez, gazteek prestakuntza lanarekin txandakatzeko Hezibi Programaren oinarri arautzaileak ezartzen dira.

- 1/1997 Dekretua, azaroaren 11koa
- 3/2012 Legea, uztailaren 6koa

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Lanarekin txandakatzeko lanbide-heziketaren eredua. Enpresen barruan enpleguari eta bestelako irakasbideei lotutako prestakuntza-ekintzak bultzatzea, lanbide-heziketako ikasleei eta gazte langabeei zuzenduta daudenak, enpresako lan-jarduera ordainduarekin txandakatuta profesionaltasun-ziurtagiri bat edo hasierako lanbide-heziketako titulu bat lortzearen bidez gazte horien lanbide-gaitasunak hobetzeko, eta, era horretan, enpresen premiak eta langileek eskuratutako gaitasunak egokitzen laguntzeko.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

2015eko maiatzaren 14ko 2118 Ebazpenaren arabera, deialdiaren xedeko laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoen zenbatekoa 1.000.000 eurokoa da. Horietatik, 2015. urteko aurrekontu arruntean sartu dira 400.000 euro, eta 2016rako konpromiso-aurrekontuan, aldiz, 600.000 euro.

Aurreikusitako emaitzak:

2015eko kreditua: 1.000.000 (2015ekoa eta aurreko urteetan adostutakoa)

Txandakako prestakuntzan parte hartu duten pertsonen kopurua: 400

Egiazko emaitza:

2015ean erabilitakoa : 804.200 €

Txandakako prestakuntzan parte hartu duten pertsonen kopurua: 555

Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-inpaktua:

Prestakuntza dualak, hau da, enpleguarekin txandaka egiten denak, eragin zuzena du Lanbide Heziketako titulu bat edo profesionaltasun-ziurtagiri bat ikasten ari diren gazteen enplegarritasunean, prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua egiten baitiete, horrek enpresarentzat zein langilearentzat dituen abantaila guztiekin.

1.- Izenburua

HOBETUZ. Euskal Autonomia Erkidegoko enpresek garatzen dituzten prestakuntzako ekintza estrategikoetarako laguntza ekonomikoen 2015ko ekitaldirako deialdia.

Hobetuz programaren egituraren finantzaketaren Ebazpena barne.

2.- Araua

Euskal Autonomia Erkidegoko enpresen aldetik garatzen diren prestakuntzako estrategia-ekintzak egiteko laguntza ekonomikoen 2013ko ekitaldirako deialdia, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak 2015eko urriaren 22ko bileran hartutako Akordioaren bidez onartutakoa. (2015eko urriaren 23ko EHAA)

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Enplegurako lanbide-heziketako azpisistemaren prestakuntza-ekimenaren helburua, nagusiki, landunei prestakuntza-ekintzak eskaintzea da, gaitasunak eta kualifikazioa hobetu ditzaten eta banako langileak birkualifikatu daitezten. Landunekin batera, deialdi honetan aurreikusitako ekintzetan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu-eskatzaille gisa izena emandako langile langabeek parte hartuko dute, eta parte hartzen duten pertsonen % 40 izango dira gehienez. Ekimen horrekin biztanleria aktiboaren bizitzan zeharreko enplegarritasuna eta prestakuntza hobetu nahi da, aldi berean, enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea ekarriz.

Deialdi honen helburua laguntza eskatzen duten enpresetako langileen prestakuntza espezifiko ahalbidetzea da. Deialdi honi esker finantzaketa ezartzen zaien prestakuntza-ekintzen bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei beren langileen eskumenak eta kualifikazioak hobetzeko prestakuntza-ekintzak programatzeko aukera ematen zaie.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Aurreikusitako emaitzak:

2015eko kreditua: 21.285.960 € (Eskaintzako deialdia)

2015eko kreditua: 2.250.000 € (HOBETUZen egiturako ebazpena)

Ikastaro-kopurua:

Ikasle kopurua:

Egiazko emaitza:

2015ean erabilitakoa : 21.230.000 € (Eskaintza-deialdia)

2015ean erabilitakoa : 2.250.000 € (HOBETUZen egiturako ebazpena)

Ikastaro-kopurua: 3.510

Ikasle kopurua: 25.244

Emaitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-inpaktua:

2015ean ez zen eskaintza-deialdirik argitaratu, baina 2015eko kreditu-konpromisoarekin onartu ziren ekintzak likidatu ziren. Aurrekontu-kreditua 21.230.000 eurokoa da, 2014ko eskaintza-deialdiko 15.210.000 € gehi 2014ko enpresen deialdiko 3.870.000 € gehi 2015eko ebazpeneko 2.150.000 € batuta.

1.- Izenburua

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria

2.- Araua

- 18/2008 Legea, abenduaren 23koa, Gizarteratzeari eta Diru Sarrerak Bermatzeari buruzkoa.
- 147/2010 Dekretua, maiatzaren 25koa, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoa.
- 2/2010 Dekretua, urtarrilaren 12koa, Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari buruzkoa.
- Agindua, 2001eko otsailaren 14koa, Oinarrizko Errentaren titularrentzat eta Gizarte-larrialdietarako Laguntzen onuradunentzat lanean hasteko pizgarriak ezartzeko dena.
- 4/2011 LEGEA, azaroaren 24koa, Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko Legea aldatzekoa.

3.- Diru-laguntzen programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta aldizkako prestazio ekonomikoa eta eskubide subjektibozkoa da, bizikidetz-unitate batean oinarrizko premiei lotutako gastuei zein gizarteratzeko edo laneratzeko prozesu baten ondorio diren gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez daukatenei zuzendua.

Etxebizitzarako Prestazio Osagarriari dagokionez, aldi behingo prestazio ekonomikoa da, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren osagarri gisa araututa dagoena. Etxebizitzaren edo ohiko bizilekuaren alokairu-gastuak ordaintzea du xede, edozein dela ere modalitatea: errentamendua, azpierreantamendua, baterako errentamendua, ostatatzea eta logela-alokairua.

4.- Lortutako emaitzak, aurrekontu programarekin lotutako magnitudeak eta eragina gizartean

Ebazpen/Deialdiaren aurrekontu-datuak

Aurreikusitako emaitzak:

DBE eta EGPOra bideratutako 2015eko kreditua: 486.904.865 €

DBE eta EGPOren espedienteak/onuradunak: 80.000

Egiazko emaitza:

2015ean erabilitakoa : 486.882.649 €

DBE eta EGPOren espedienteak/onuradunak: 65.656 espediente batez beste 2015ean

Onuradunen batez bestekoa: 118.920 onuradun batez beste 2015ean

Emitzen azterketa, baliagarritasuna eta gizarte-inpaktua:

Programa horren helburua euskal gizarteko kolektiborik ahulenak babestea da, eta lortu du bere helburua, 2015ean 65.000 familia baino gehiagori eman baitzien laguntza.